



Sosegua

1

Nola uste duzu sentitzen direla Emoziotegiko 24-25. orrialdeetako irudiko arrainak? Aukeratu egokiak iruditzen zaizkizun hitzak, eta, gero, azaldu zergatik aukeratu dituzun hitz horiek.

eroso

kezkatuta

urduri

lasai

serio

deseroso

triste

patxadatsu

2

Zer sentsazio eragiten dizu arrain horiei begiratzeak? Azpimarratu.

lasaitasuna

egonezina

baretasuna

patxada

gozotasuna

atsedena

kezka urduritasuna

● Gustatzen zaizu sentsazio hori? Zergatik?

3

Irakurri **harmonia** hitzaren esanahiak, eta adierazi zein agertzen den esaldi bakoitzean, dagokion zenbakiaren bidez.

harmonia.

1. Osotasun baten atalen arteko proportzio egokia.
2. Laguntasuna eta harreman ona.
3. Desberdinak izan arren elkarrekin bat datozen hotsen batura.

- Altzari guztiak kaoba eta burdinazkoak direnez, harmonia bat dago dekorazioan.
- Musika-konposizio honetan, harmonia handia dago hari-instrumentuen eta haize-instrumentuen artean.
- Abesbatzan harmonia handia dugu: gauza asko egiten ditugu elkarrekin eta oso ondo pasatzen dugu.

4

Irakurri Emoziotegiko 24. orrialdeko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Sosegua azaleko emozio bat da.
- Pertsona bareak gozoak eta atseginak dira.
- Pertsona gozoei azukrea duten gauzak gustatzen zaizkie.
- Soseguak gauzak argi ikusten laguntzen dizu.
- Sosegua zure erraietan dagoen muskulu bat da.

5

Ordenatu ondorengo hizkiak testuan "otzana, gozoa, lasaia" adierazten duen hitza ikusteko, eta idatz ezazu.

S A K U T A B E → _____

6

Testuak dio sosegua **landu** egin daitekeela. Zer esan nahi du horrek? Markatu egokia iruditzen zaizun esanahia.

- Norbaitengan ekintza bat gauzatzea. Adibidez: *Irakasleek nigan presioa lantzen dute ikas dezadan.*
- Zerbait gauzatzea. Adibidez: *Arkitektoak urbanizazio-proiektua landu zuen.*
- Gorputzaren edo gogamenaren atal bat erabiltzea, atal hori estimulatzeko. Adibidez: *Irristalariak asko lantzen dituzte belaunak.*
- Orain, jarri aditz egokia gainerako adibideetan. Gero, zuzendu oker zeuden adibideak.

egin → _____

gauzatu → _____

7

Azpimarratu **eman** aditzaren sinonimoak, eta idatzi esaldi bat haietako bakoitzarekin.

eskaini banatu aldatu aitortu lortu

8 Irakurri egoera hau, eta egin gogoeta galderei erantzuteko.

Duela bi hilabete hanka bat hautsi nuen. Amorratuta nengoen erabat... Nola edo hala patinatzera irten nahi nuen. Baina makuluak erabili behar nituen, eta ezin nuen. Asko haserretu nintzen, eta triste nengoen. Okerrena zen ezin nuela ezer egin egoera hura aldatzeko!

Orain, sosegatuago nagoela, ohartzen naiz alferrik dela saihestu ezin den zerbaitengatik haserretzea. Gainera, egin ditzakedan gauza asko daude oraindik.

Karmele

● Nola sentitu zen Karmele hanka hautsi zuenean?

● Nola sentitzen da orain?

● Zer pentsatzen du lehen zituen sentimenduez?

● Uste duzu zoriontsuagoa dela orain hanka hautsi zuenean baino? Zergatik?

9 Irakurri Manexek pentsatzen duena. Gero, hausnartu, eta idatzi sosegua kentzen dizuten lau gauza.

Manex

Etxe honetan ez dago lasai egoterik: Laida gitarra jotzen ari ez bada, txakurra zaunkaka dabil, edo aita karaokean kantari, edo auto-pilaketak daude kalean eta denak klaxona jotzen ibiltzen dira...

10 Orain, idatzi sosegua berreskuratzeko moduak. Jarraitu ereduari.

1. Zarata handia badago, bainu bat har dezaket...



Sosegua

OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.